

SaskibaloI Kirol Teknikari Ikastaroa (Erdi Mailako Haiserako Zikloa) 2022-23

Curso de Técnico/a Deportivo/a en Baloncesto (Ciclo Inicial de Grado Medio)



ESCUELA NAVARRA DEL DEPORTE
NAFARROAKO KIROL ESKOLA



MIGUEL INDURAIN



Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

Ikastaro hau araubide bereziko kirol ikasketen barne dago. Ikasketa horiek hezkuntza sisteman sartuta daude. Beraz, balio akademikoa dute. Bi mailatan egituratzen dira: erdi maila eta goi maila. SaskibaloI Kirol Teknikariaren titulua erdi mailakoa da eta bi ziklo ditu: hasierako zikloa eta amaierako zikloa.

Ikastaro honen bidez erdi mailako irakaskuntzak hasten dira, SaskibaloI Kirol Teknikariaren titulua lortzeko asmoz.

Bloke espezifikoa egiteko, Nafarroako Kirolaren Eskolak Nafarroako SaskibaloI Federazioaren laguntza du.

Sarbidea:

Betebehar orokorrak:

Izangaiek betebehar hauetariko bat frogatu beharko dute:

- DBH-ko Gradua izatea (edo baliokidea)
- Goi Mailako Titulua izatea.
- Erdiko mailako kirol irakaskuntzetako sarbide proba gainditzea. Gutxieneko adina 17 urtekoa da (urte naturalean beteta).
- Erdiko mailako graduako lanbide heziketako sarbide proba gainditzea.

Betebehar espezifikoak:

- Sarbide-proba espezifikoa egitea edo kirol-merezimendua egiaztatzea, hau da, haur-kategoriatik hasi eta absolutura arte gutxienez denboraldi batean federazio-lehiaketako edozein kategoriatan lehiatu izana. Kirol-merezimendua egiaztatzen duen ziurtagiria Espainiako Saskibaloï Federazioak emango du.
- Sarbide-proba espezifikoak gainditzetik salbuetsita daude:
 - o 971/2007 Errege Dekretuak saskibaloï modalitatean zehazten dituen goi mailako kirolariek.
 - o Nafarroako araudiak edo baliokideak onartzen dituen Saskibaloïko goi-mailako kirolariek.
 - o Espainiako Saskibaloï Federazioak azken bi urteetan Espainia ordezkatzeko hautatutako kirolariak, gutxienez maila absolutuko nazioarteko lehiaketa ofizial batean.

Formakuntza-plana

Bloke komuna:

MODULUAK	ORDUAK
	60
Kirol jarreraren oinarriak	20
Lehen laguntza	30
Kirol aktibitate egokitua eta desgaitasuna	5
Kirol antolakuntza	5

Bloke espezifikoa:

MODULOAK	ORDUAK
	265
Jokalariaren prestakuntza hasierako etapetan	40
Talde zuzendaritza hasierako etapetan	20
Saskibaloïaren irakaskuntza	35
Erasoko eta defentsako taktika hasierako etapetan	20
Prestakuntza praktikoa	150

Ikastaroaren garapena

Bloke espezifikoa:

- Aurkezpena: 2022ko urriaren 27a
- Datak: 2022ko urriaren 27tik 2023ko urtarrilaren 12ra eta 2023ko martxoaren 10etik ekainaren 4ra
- Aurrez aurreko azterketak: 2023ko urtarrilaren 12an eta ekainaren 1ean.
- Modalitatea: erdi-presentziala
- Saio presentzialak: eskatu egutegia Nafarroako Federazioa.
- Praktikaldea (150 ordu): 2023ko martxoaren 10etik ekainaren 11ra.

Bloke komuna:

- Kurtsoaren Aurkezpena: 2023ko urtarrilaren 13an
- Datak: 2023ko urtarrilaren 14tik martxoaren 5era
- Azterketa presentziala: 2023ko martxoaren 17an
- Modalitatea: on line (aula ceimd)

Onartua izateko prozedura

Aurretiko izen-ematea

Ikastaroan aurrez izena emateko, izangaiek **eskabide-orria** bete eta NaKirolEko idazkaritzan aurkeztu beharko dute, edo formacion@fundacionmiguelindurain.com helbide elektronikoaren bidez eta **50€ ordaindu** beharko dituzte, matrikulazio-kuotatik deskontatuta izango direla.

Ordainketa kontu honetan egin beharko da:
ES 33 2100 3693 23 2210035448 (Caixabank)
Kontzeptua: EMHZ Saskibaloia eta ikaslearen izen-abizenak

Ordainagiria ENaDxTko-NaKirole Idazkaritzan aurkeztuko da

- Aurrez izena emateko epea: 2022ko irailaren 21etik urriaren 9ra

Sarbide proba espezifikoak

Baldintza orokorrak betetzeaz gain, izangaiek sarbide proba espezifikoak gainditu beharko dituzte. **Hezkuntza Sailak** proba hauen deialdia egiten du. Proba hauek gainditu behar dira derrigorrez matrikula egin ahal izateko.

Nafarroako Kirol Eskolak garaiz jakinaraziko die aurre inskripzioa egin duten izangaiei probak egiteko Hezkuntza Departamentuak ematen duen prozedura.

Probak egiteko aurreikusitako data: zehazteke.

Proba hauek gainditzetik salbuetsita daude irakaskuntza hauek arautzen dituen errege-dekretuak ezartzen duen kirol-merezimendua egiaztatzen duten izangaia (*), saskibaloiko modalitatean goi-mailako edo errendimendu handiko kirolariak direla egiaztatzen dutenak edo azken bi urteetan Espainiako Saskibalo Federazioak kategoría absolutuko nazioarteko lehiaketa batean gutxienez hautatu dituenak.

(*) Haurren kategoriatik kategoría absolutura federazioko edozein kategoriatan gutxienez denboraldi batez lehiatu izana.

Matrikulatzeko epea:

Proba horiek gainditzetik salbuetsita daude horiek arautzen dituen errege-dekretuak ezartzen duen kirol-merezimendua egiaztatzen duten izangaia. Sarbide-probak gainditu dituzten ikasleen behin betiko zerrenda argitaratu ondoren, ikastaroan matrikulatu ahal izango dira, Nafarroako Kirol Eskolak behar bezala adieraziko dituen jarraibideen arabera.

Matrikulazio kuota:

Matrikulazio kuota: 350 €

Matrikulazio data:

Epea: urriaren 10etik urriaren 21era

Matrikulatzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Izena emateko eskabidea: kirolaren Nafarroako Eskolako Idazkaritzan aurkeztu beharko da (Kirolaren Ikasketa, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa). Zangoza kalea, 34 - Larrabide estadioa). Beste lege-prozedura batzuen bidez ere izapidetu ahal izango da.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluaren edo baliokidearen fotokopia konpultsatua, edo sartzeko baldintza orokorretan agertzen den beste egoeraren bat.
- Kirol-merezimenduen ziurtagiria.
- NANaren/Pasaportearen/AIZren fotokopia
- Hala badagokio:
 - o Desgaitasuna egiaztatzen duen dokumentazioa
 - o Goi-mailako/errendimendu handiko kirolaria dela egiaztatzen duen dokumentazioa.
 - o Diplomaren, baliozkotzearen edo korrespondentzien homologazioa egiaztatzen duen dokumentazioa.

Erreferentziako legeria:

- 1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24koa, araubide bereziko kirol irakaskuntza kudeaketa orokorra ezartzen duena.
- 99/2017 Foru Dekretua, azaroaren 8koa, Nafarroako Foru Komunitatean araubide bereziko kirol irakaskuntzen Saskibaloiko Kirol Teknikari tituluaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen.
- 43/2012 Foru Agindua, maiatzaren 15koa, Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan araubide bereziko kirol irakaskuntzen erdi mailako hasierako zikloaren bloke komunaren egitura eta curriculuma ezartzen dituen, ekainaren 12ko 58/2015 Foru Aginduak aldatua.
- 90/2018 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Unibertsitateen eta Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiarena, Nafarroako Kirol Eskolari baimena ematen diona saskibaloiko kirol-irakaskuntzak, araubide bereziko kirol-irakaskuntzen bloke komuna eta urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretuaren lehen xedapen iragankorrean aipatzen diren kirol-prestakuntzako jarduerak irakasteko.

Informazioa /Izena aurretik emateko epea:

Nafarroako Kirol Eskola (NakirolE)

Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntzako Zentroa (Larrabide estadioa)

Zangoza K. 34.

31005 IRUÑA

Tfnoak.: 848 431585

E-mail: formacion@fundacionmiguelindurain.com